



Igeldoko San Pedro jaiak ez dira hasten Ttonttorro igotzen den arte. **XALBA RAMIREZ**

Ttonttorro prest dago toki entitate txikiari ongietorria egiteko

Gaur hasiko dira ofizialki Igeldoko San Pedro jaiak, eta uztailaren 2ra arte luzatuko dituzte. Pasa den asteburuan giroa berotuta, bost eguneko egitaraua prestatu du jai batzordeak. Nobedade ugari izango ditu, baina bada bat benetan esanguratsua dena.

✎ Inaxio Esnaola Aranzadi

Igeldo toki entitate txiki gisa martxan jarri osteko lehen San Pedro jaiak abiatuko dituzte gaur arratsaldean. Ttonttorro gogotsu dago festei hasiera emateko eta Igeldoren izaera berriari merezi duen ongietorria egiteko. Herriko plazan izango da, 20:00etan. Ordutik aurrera, bost eguneko programaz gozatzeko aukera izango dute herritarrek. San

Pedro jaiak uztailaren 2ra bitarte biziko dituzte, baina atsedeen egun batekin. Datorren astelehenean, ekainaren 30ean, ez da jarduerarik izango eta indarrak berreskuratzeko aprobetxatuko dute.

«Urteroko egitarauaren oinarriari eutsi diogu, herritarrek gustuko dutena mantentzea delako Ttonttorro jai batzordearen helburua. Urtetan

harrera ona izan duten jarduerari jarraipena ematea gustatzen zaigu, eta proposamen berriak jaso ordutik, horiek aurrera eramaten saiatzen gara», azaldu du Oihane Arruti jai batzordeko kideak. Hori dela eta, aurtengo jaiak berrikuntza ugari dituztela nabarmendu du: «Bihar, bi ditugu. Batetik, lehen aldiz egingo dugu mojito lehiaketa bazkalostean.

Uztailaren 2an, estreinako aldiz, bakarriketa saio bat egingo dute, eta lau umoregile ezagunek parte hartuko dute

Bestetik, goizeko patata tortilla txapelketaren orde, pintxo lehiaketa izango dugu. Beste nobedade garrantzitsua estreinakoz egingo dugun bakarriketa saioa da. Uztailaren 2an izango da, eta umoregile ezagunek parte hartuko dute».

Eskaintza «aberasteko» asmoarekin gehitu dituzte jarduera berriak. «Igeldoko San Pedro jaiak oso parte hartzaileak dira, eta adin tarte guztientzako jarduerak ditugu. Ordea, ikusle gisa gozatzeko jarduerak indartzea erabaki dugu aurtengoa, adierazi du Arrutik. Aurreneko aldiz egingo duten bakarriketa saioarekin batera, aipatzekoak dira biharko bertso saioa eta etziko kirol probak.

Dena dela, berrikuntza esanguratsua beste bat dela aitortu du Arrutik. Hasieran aipatu moduan, Igeldo toki entitate txiki izendatu osteko aurreneko San Pedro jaiak izango dira. Zehazki, iazko abenduaren 20an jaso zuen izendapena. Aldiz, batzorde kudeatzailea iragan martxoaren 6an sortu zuten, eta hilabete berean egin zuen sorrera festa. Ordutik aurrera Igeldoren beharrak kudeatzen dihardute, eta, noski, San Pedro jaien antolaketa ere parte hartu dute. «Horri esker, aurrekontu handiagoarekin prestatu ditugu festak. Jarduera asko TETaren bidez antolatu ditugu, eta

Donostiako Udalarekin ere beste hainbat kontu bideratu behar izan ditugu. Jaietarako diru gehiago izan arren, ez da asko nabarituko. Jaien ohiko esentzia mantendu dugu», azaldu du Arrutik.

Ttonttororen laguntzaileak

Igeldoko San Pedro jaiak aurrera eramateko, lantalde txikia du Ttonttorro jai batzordeak. Ordea, laguntzaile eta bitartekari sare zabala dute herritarren artean. «Urtez urte ondo moldatzen gara jaiak antolatzeke, eta lasai gaude herritarrek beti daudelako laguntzeko prest», nabarmendu du Arrutik. Herritar horiek dira festarako gogotsu daudenak, eta Igeldon prest daude Ttonttororen igoerarako: «Herrian nabaritzen da jendea jaiak hasteko irrikan dagoela. Iragan asteburuan motorrak berotu eta San Joan bezperan sua piztu ondoren, berezko festak bizitzeko gogotsu gaude denok». ●



OSTIRALA 27

18:30

Euskal dantza, trikiti eta pandero emanaldia frontoian, herriko dantzariekin eta musikariekin.

20:00

Ttonttororen igoera.

Ondoren, kalejira txikia, urezko zezena eta buruhandiekin. Animatu, haur, gazte zein heldu zuen trikiti eta panderoak astintzera!

23:30

Kontzertua, Gabezin taldearen eskutik.

Ondoren, Jaleo DJ-a Herri tabernan.

LARUNBATA 28

12:00

Pintxo lehiaketa.

13:00

Kantujira, plazan zehar.

GUDAMENDI

Ondo pasa
Igeldoko San Pedro jaietan!

Gudamendi pasealekua, Igeldo, Donostia - 943-21 40 00
reservas@hotelgudamendi.com



Sanpedroak, sanpedroak
etorri dira aurtengoak!

MUNIOTA
ERAIKUNTZAK

627 71 88 46



13:30

7. Sanpedrotako Oliba Jaitsiera txapelketa.

14:40

Herri bazkaria eta ondoren, herriko trikitilari eta panderojoleek girotutako bazkalostea.

18:30

Ea nork mojito hobea prestatu!

20:00

Bertso saioa: Alaia Martin, Nerea Ibarzabal, Andoni Rekondo eta Amets Arzallus.

23:30

Kontzertua Sukena eta Soka taldeen eskutik.

Ondoren, 2Raka DJ-a Herri tabernan.

IGANDEA 29

San Pedro eguna

10:00

Meza. Antiguako abesbatza izango da bertan.

11:00

Hamaiketako. Din-Din-era inguratzen den igeldotar ororentzat.

12:30

Herriarren arteko herri kirolak.
Aizkolariak: Ibai Soroa eta Ugaitz Mugertza.

18:00

Toka eta bolo lehiaketa. 17:30etik 18:30era arte izango da apuntatzeko epea.

19:30

Emakumeen eskuzko pilota partida ikusgarria toke erdiko pilotarekin:
Arraiza-Gaminde eta Alday-Arrillaga.

Ondoren, kalejira txikia, urezko zezena eta buruhandiekin. Animatu,haur, gazte zein heldu zuen trikiti eta panderoak astintzera!

22:00

Idi dema. Igeldo eta Artolaren idiak arituko dira elkarren aurka 1.600 kiloko harriarekin.

Doako aparkalekua eta bus geltokia bertan.

HOTEL
LEKU
EDER

Ondo pasa Igeldoko San Pedro Jaietan!

Eskaintza bereziak gure webgunean
www.lekueder.com

Kristobal Balenziaga, 2, 20008 Igeldo-Donostia [Gipuzkoa] Tf: 943-21 01 07

Gora sanpedroak!

MiKEL

Harategia · Urdaitegia





Juan de Garai kalea, 1, 20008 Donostia
943-21 29 63 · 615-75 26 33



AYESTARAN

Zilargintza · Erlojugintza · Bitxi-denda
Garaikurrak · Grabatuak

Abuztuaren 31, 16 · 943 42 93 90 · info@joyeriaayestaran.com



23:30

Kontzertua, Bide Batez taldearen eskutik.

ASTEARTEA 1

Umeen eguna

11:00

Ttonttorro Txikiren igoera.

11:30-13:30

Uretako puzgarriak (1.txanda).

13:30

Haurren bazkari herrikoia.

Oharra: bazkarirako sarrerak 5 euroan egongo dira salgai egunean bertan.

15:00-16:30

Uretako puzgarriak (2.txanda).

Oharra: 16:30-17:30 artean 6 urtetik beherako haurrek uretako puzgarrietan ibiltzen jarraitzeko aukera izango dute.

16:30

Ginkana mundiala Igeldon barrena.

18:30

Haurrentzat merienda.

Ondoren, kalejira txikia, urezko zezena eta buruhandiekin. Animatu, haur, gazte zein heldu zuen trikiti eta panderoak astintzera!

22:00

Santa Ixabel eskearen irteera plazatik.

ASTEAZKENA 2

Santa Ixabel eguna

18:00

Santa Ixabel eskearen amaiera, kaxkoan zehar.

19:00

Bakarriketak herriko plazan: Antton Telleria, Maialen Sorzabalbere, Mikel Irazusta eta Ander Malbadi.

Ondoren, Ttonttorro Txikiren jaitsiera.

**22:00**

Zaldi dema. Imanol Mujikaren eta Aritz Garaiarren abereak arituko dira elkarren aurka 900 kiloko harriarekin.

23:30

Erromeria, Izer eta Alabier trikitilariekin.

00:00

Auresku Herrikoia eta Ttonttorroren jaitsiera. Ondoren, Izer eta Alabierrekin emango diegu amaiera festei.



Gerturatu eta gozatu!
Gora sanpedroak!

Kontzertuak:
 Gabezin, Sukena,
 Soka, Bide Batez, DJak
 eta gehiago!

IGELDOKO TOKI ENTITATE TXIKIA